

Etikoki jasangarria
den aldaketa
pertsonalerako
eta sozialerako
ekarriak egiteko
proiektuaren
abiapuntuak

**Baketik
berrabiarazi da**

urria
20112012
urria

Baketik berrabiarazi da

Etikoki jasangarria den aldaketa pertsonalerako eta sozialerako ekarriak egiteko proiektuaren abiapuntuak

2006ko urriaren 14an azaldu zen lehenbizikoz jendaurrera Baketik, Arantzazun (Oñati). Elkarrikeretaren eta akordioaren aldeko Elkarri mugimenduan jardunak ziren erakunde berriaren sortzaileak, eta Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarren bultzada ere izan zuen. Frantziskotarren erabakiz Arantzazun izango zuen egoitza elkarte berriak, eta erakunde autonomoa, laikoa eta akonfesionala behar zuen izan, plurala eta irekia.

Gatazken lantze etikoa bultzatzeko zentro gisara jaio zen Baketik, eta bi kontzeptu hauen uztarteketa zuen oinarri: bakea eta etika. Halaxe dio izenak berak: **baketik**, bakea eta etika. Harrezkerotik, hainbat aldaketa izan dira eta, orain, 2011n, honela dakusagu geure erakundea: prozesu eta gatazka pertsonaletan, sozialetan, hezkuntzazkoetan eta elkartasunezkoetan etikak duen baliagarritasuna ikeritzeko, jorratzeko eta hedatzeko zentro gisa.

Atzo, urriak 14, bost urte bete zituen Baketik-ek. Gaur, aro berri bati ekingo dio. Agiri hau duzue ziklo berriaren atariko adierazpena. Hurrengo urteotan garatu nahi dugun proiektuaren ardatzak jasotzen ditu agiriak, 10 arrazoibidetan (III + 7) laburbilduak. Horiek ditugu, hain justu ere, Baketik-en «berrabiaraztearen» ildo nagusiak.

Baketik

Arantzazu, 2011ko urriaren 15a

A. AZTERKETA

I. Bost urteotan egindako lanaren deskribapena

Orain arteko lana, proiektu berri baten oinarri

Orain arteko lana, proiektu berri baten oinarri

Irudipen edo uste honen emaitza dugu Baketik: *bakea* eta *etika* hitzen esanahia, zentzua eta edukia elkartzea onuragarri zaie gizon-emakumeei eta gizarteari. Uste hori abiapuntu harturik, zentro bat ireki genuen, Arantzazun, geure egoitza, eta zenbait lan, ekimen, proiektu eta jarduera bultzatze-ari eta aztertze-ari ekin genion. Zabala, irekia eta bizia izan zen azterketa; programa eta ekimen ugari bultzatu genituen.

Proiektu batzuek indarra galdu zuten, baina gehienak martxan dira, eta fruituak ematen segitzen dute. Lehenbiziko aro horretan, hainbat eta hainbat eremu aztertu ditu Baketik-eko lan-taldeak; orain, bere eginkizunari hobekien dagokion alorra zehazteko eta zedarrizteko. Hona hemen, bada, bost urteko lehenbiziko etapa honetan bultzatu ditugun proiektu nagusiak.

Proiektu nagusiak

•Hobeto bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko ikastaro-programa (2006-11)

Ikastaro-eskaintza zabala egiten du urtero, zenbait gairen gainean: gatazkak, herritarren partaidetza, sufrimendua, elkartasuna, bizitza, bizikidetzak, giza heldutasuna... Sei mila lagun baino gehiagok hartu dute parte programa honetan.

•Antzerki-Foruma (2007-11)

Antzerkiaren bidez errealitatea aztertuz eta berreraikiz, balio etikoak sustatzen ditu. 8 eta 16 urte bitarteko 17.000 bat ikaslek hartu dute parte. Programa honek jorratu dituen gaiak indarke-riarik eza, errespetua, berdintasuna, elkartasuna eta giza duintasuna izan dira.

•Bideoteka Proiektua (2007-11)

Hiru zerbitzu eskaintzen ditu: bizitzari eta giza harremanei buruzko 200 filmeko funtsa (gida didaktikoak dituzte film guztiak); bideokluba, 175 bazkideduna (urtean 10 film eta gida jasotzen ditu bakoitzak), eta zinemari eta hezkuntzari buruzko ikastaro bat, urtero.

•Lehentasun etikoei buruzko urteroko jardunaldiak (2007-11)

Udaberrirori, saio itxi bat egiten da, 25 gonbidaturekin, eta saio ireki bat. Zenbait aditu aritzen da hizlari. Besteak beste, hezkuntza, bakea, erlijioen arteko elkarriketa, berradiskidetzak eta abar jorratu dira.

•Afrikari buruzko Astea eta Afrikandugu proposamena (2007-11)

Gogoeta kritikoa egiten du, urtero (ekainean), Afrikako zenbait gonbidaturekin. Horrela sortu zen Afrikandugu, Europako eta Afrikako gizarte zibilen arteko elkartasuna eta lankidetzarako se- nidetzea sustatzeko proposamena.

•Argitalpen-proiektua (2007-11)

Baketik-en dibulgazio- eta hezkuntza-lanaren laguntzaile dugu. Hamabi aldizkari monogra- fiko, zenbait liburu eta hainbat formatutako bestelako argitalpenak plazaratu ditu geure zentroak, hemengo ikastaroak eta ekimenak ardatz izanik guztiak.

•Zenbait eskakizun asetzeko programa (2007-11)

Baketik-ek jasotzen dituen zenbait eskari asetzeko programa, betiere giza duintasuna abia-

puntu dela. Herritarren partaidetzari, giza eskubideei, hezkuntzari, balioei eta abarri buruzko lanak, hitzaldiak eta jardunaldiak egin ditugu.

•Arantzazu Proiektua

Arantzazu bila dabilzan pertsonentzat harrera-leku berrituztat sustatzeko prozesuan laguntzen du proiektu honek. Baketik-eko lan-taldea gogoz jardun da zeregin horretan Arantzazuko Adiskideak elkartearekin, Arantzazu Gaur Fundazioarekin eta frantziskotarrekin batera.

•Asistik Arantzazura Proposamena (2008-11)

Erljioen eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko iradokizun bat egin du. Nazioarteko erakundeen aurrean 2008an aurkeztu zuen iradokizuna, eta zazpi hizkuntzatan argitaratu zuen, eskoletan banatzeko. Bakearen aldeko 80 testu eta otoitz —erlijio eta kultura askotakoak— ditu argitalpenak.

•Dohain Programa (2008-11)

Egoera zailtan daudenei (gaixoak, droga-mendekotasunen bat dutenak, babesik gabeko adingabeak, presoak, urritasunak dituztenak...) prestakuntza-egonaldiak egiteko eta atsedean hartzeko aukera eskaintzen die Arantzazun. 741 lagunek hartu dute parte programan, 42 egonalditan.

•Izeba proiektua (2009-11)

Bakarrik dauden atzerriko adingabeen osaba-izeba gisara jarduteko prest dauden herritarren edo familien sare bat eratu du Gipuzkoan. 50 boluntario ditu sareak, eta harrera-zentroen laguntzaile jarduten da, adingabeko horiek hobeto gizarteratzeko ahaleginean.

•Izan Hezkuntza Proposamena (2010-11)

Gizaki izaten ikasteko eta irakasteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzen ditu. Familiarentzat eta irakasleentzat da, batez ere. Urtebeteren buruan, mila bat lagun jardun dira proposamen honekin, eta 20 ikastetxetan aplikatzen da.

•Bihotzetik modulu didaktikoa (2011)

Euskal gatazkan giza eskubideen urraketen biktima izan direnekiko elkartasuna eskolan nola jorratu? Hain zuzen ere, horretarako eskaintzen ditu programa honek baliabide teorikoak eta praktikoak; trebakuntza eskaintzen die irakasleei, bizikidetzaren berreraikuntza du xede.

•Berrikuntzaren Etika Proiektua (2011)

Berrikuntza eta enpresa-jarduera oinarri etikoekin nola garatu? Horri buruzko trebakuntza eta aholkularitza eskaintzen die proiektu honek enpresei, egungo ereduaren ikuspegi kritikoa abiapuntu duela.

•«Bizikidetzaren berreraikitzeko indarguneak» ekimena (2011)

Geure herriko bizikidetzaren berreraikitzeko eta berradiskidetzaren sustatzeko hainbat proposamen (trebakuntzaren, dibulgazioaren, hezkuntzaren eta erakundearen alorrekoak) egiten ditu, batez ere, udalei zuzenduak.

Balorazioa

Zerrenda irakurri eta, lehen begiratu batean, halako sakabanaketa-itxura edo har diezaioke irakurleak. Alabaina, ikuspegi eta gida-lerro bera izan dute etapa horrek eta dagozkion ekimen guztiek: bizitza, bizikidetzaren, hezkuntzaren eta elkartasuna hobetzen laguntzea, betiere etika abiapuntu dela. Horra orain arteko geure ibilbidearen mamia.

Orain, berriz, Baketik berrabiarazi beharrean gaude, geure ekimenen, ahalmenen, mugen eta aukeren bilakaerak hala eskatzen digulako, batetik; bestetik, horretara behartzen gaituztelako bertako lehentasun berriek eta egungo krisi orokorrak plazaratu dituzten kontraesanek eta baldintzek. Geure zerregina berriro xedatu behar dugu. Aukeratu egin beharko dugu: proiektu batzuk utzi, eta beste batzuk bultzatu. Horretarako, oinarri bikaina dugu orain arteko bidea, zimendu tinkoa eta sendoa. Lanaren zati handia eginga dago jada.

II. Balantze kualitatiboa

Emaitza nagusia, Bizizikasi pedagogia

Hobetzen laguntzea izan da Baketik-en gida-lerroa. Hori dela-eta, hobetzen nola ikasten dugun gogoeta egin behar izan dugu, eta hobetzeko pedagogia bat sortu, halabeharrez. Horrenbestez, ia konturatu gabe, aldeztatik pentsatu gabe, Bizizikasi pedagogia eraiki dugu, piezaz pieza, bost urteotan osatu dugun puzzle bat balitz bezala.

Esanahia eta edukia

Norberaren bizitza, bizikidetzatza, hezkuntza, elkartasuna eta abar hobetzeko pedagogia da. Bi kontzeptu elkartzen ditu: esperientzia eta ikaskuntza. Zortzi esperientzia jakinen ikaskuntza-prozesua eginez hobetzeko gai garela esan nahi du. Gizakion giza alderdirik bereziena eta unibertsalena osatzen dute zortzi esperientzia horiek, eta ahalmen didaktiko izugarria dute, bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko oinarrizko zer guztiarekin harremanetan jartzen baikaituzte.

Hiru taldetan banatzen dira hobetzeko ikaskuntza bihurtzen diren zortzi bizipen horiek: oinarrizko lau ikaskuntza (gizakion izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasunaren esanahia); hiru ikaskuntza instrumental (elkarrizketaren plusa, enpatiaren plusa eta pazientziaren plusa) eta, azkenik, funtsezko ikaskuntza: maitasunarena. Hona hemen, labur azalduta, zortzi erreferentzia horien gakoak:

- Izaera mugatua.** Gizakion izaera mugatuak bizitzan, elkarbizitzan eta munduaren martxan duen eragina (erabakigarria) geure buruan eta besteengan ikustea eta erreparatzea. Geure izaera mugatua onartzea da haren ondorioez jabetzeko lehen urratsa.
- Esker ona.** Geuregan, besteengan eta geure inguruan daukagun edertasuna, ontasuna eta zer positibo guztiak identifikatzea eta antzematea. Ezinbestekoa da zoriotsuago bizitzeko, bizikidetzatza hobea izateko eta gatazkak etikoki kudeatzeko.
- Kontzientziari entzutea.** Hautaketa etikoak egiteko, kontraesanak eta autoengainuak aztertzeke, edo zertan ez daukagun arrazoi osoa eta zertan duten besteek jakiteke, kontzientziari beste era batera entzuten ikas dezakegu.
- Giza duintasuna.** Geure bizitzan eta elkarbizitzan egiten ditugun aukerei norabide etikoa emateke, goi-balio baten erreferentzia behar dugu: giza duintasunarena. Etiketa orotik kanpo egon behar du balio hori geuregan eta besteengan sustatzeak.

Lau erreferentzia horiek badute lotura hurrengo hauekin. Lehenbizikoak, norberaren esperientziak dira, batez ere; besteak, berriz, «besteengan» proiektatzen dira.

- Elkarrizketa.** Besteekiko elkarrizketan proiektatzen da izaera mugatua, geure izaera mugatuaren segurtasun gisara. Elkarrizketatzea da norberaren ikuspegiak beti osagabeak direla, mugatuak garela, onartzea. Bereizketa bidegaberik ez egitea da, ez geure buruarekiko ez besteekiko, eta egiaren alde jardutea.
- Enpatia.** Esker onak berekin dakar enpatia. Partekatzen baldin bada hartzen du zentzu osoa eskertzen den horrek. Elkartasunerako prestatuak gaude. Enpatiaz jardutea dugu geure ahalmenetako bat.
- Pazientzia.** Kontzientziari entzutea pazientzia bilakatzen da: eusmena kontraesanak onartzeko, eta iraunkortasuna haiek etikoki kudeatzeko. Horra desafioei, zailtasunei eta sufrimenduei modu eraikitzailean ekiteko tresna nagusia.
- Maitasuna.** Maitasunean aurkitzen du zentzua giza duintasunak: bikotekidearekiko, familiarekiko, lagunerekiko, justiziarekiko, bakearekiko, munduarekiko... maitasunean. Doakotasuna da ikaskuntza honen gakoak, bestea ahalik eta ondoen egotea helburu duen emate desinteresatua.

Ardatz nagusia

Bizizikasi pedagogiaren diagnostikoaren ardatza haren tesi nagusian dago: bere egoera pertsonala eta soziala **bere kabuz** (inguruarekin harremanetan eta elkarlanean, jakina) hobetzeko eta berrregiteko gai dena, hori da pertsona osasuntsua. Hobetzeko gai da pertsona, kontzientziatzeko, zentzua bilatzeko eta bere buruari emateko gaitasunek ikuspegi zabalak irekitzen baitizkiote. Bizizikasi pedagogiak ez du ezer berririk irakasten: norberak berekin daramana esnatzen du.

Ikuspegi kualitatibotik, hori dugu bost urteotako emaitza nagusia, eta, noski, hurrengo bost urteotarako baliabide nagusia ere. Pedagogia horren ahalmenak izango ditu ardatz gizarteari eskaintzen den Baketik-en berritze-proiektuak.

III. Gizartearen diagnostikoa eta geure proiektua

Krisi orokorra, aldaketa-premia eta horretan laguntzeko geure nahia

Egin dugu, beraz, honainoko ibilbidea, eta hainbat esperientzia eta ezagutza metatu dugu. Kontua da zer egin horrekin egungo testuinguruan. Geure ekarria egoki kudeatzeko, nahitaez begiratu behar diegu munduari, gizon-emakumeei eta inguruan dugun gizarteari. Baina, zer ikusten dugu?

Mundua, zoriontasunaren ideologia ausartegia

Oso kritikoa da geure ikuspegia. Ikusten dugu mundua aurrera ihesi doala, zalapartaka eta bidegabeki. Badakigu gizarte perfekturik ezin daitekeela espero. Badakigu neurriko inperfekzio-maila duen mundu bat izan behar dugula helburu. Badakigu, ordea, beste hau ere: ez dugu eroso sentitu behar mundu hain desorekatu eta neurrigabe honetan.

Krisi erabatekoan, orokorrean murgildurik gabiltza. Krisia ez da finantzarioa edo ekonomikoa soilik; bizitzeko moduen eta gizarte-ereduen krisia da. Nora ezean gabiltza gizakiok, gizartea, sistema, mundua... Printzipio- eta balio-desordena izugarria egin da geure bizitzen eta gizartearen jabe.

Balio materialak eta teknikoak nagusitu dira, eta alferrikakoak balira bezala zokoratu dituzte printzipio humanistikoak. Ekonomizismoa, desarrollismoa eta indibidualismoa dira ideologia garaiak; guztion ongizatea, bost axola. Kontsumismoa —norberaren guraria berehala ase behar hori— dugu guztiaren eragile. Hala, nahastu egiten ditugu garrantzizkoak diren gauzak eta bigarren mailakoak; hauek haien lekua hartu dute.

Emaitza: izugarritzko frustrazioa. Gizakiok ez gaitu zoriontsuago egiten frustrazio horrek, ezta harremanak (gizakion artekoak, sozialak, nazioartekoak) bidezkoago bihurtzen ere. Hori guztia nahikoa ez eta, hondamendi ekonomikoa, soziala, ekologikoa, energetikoa, migratorioa, elikadurarena, nuklearra, militarra... benetako arrisku bihurtu da. Egiatzki, larria da munduaren egoera.

Pertsona, desoreka erabakigarria

Jendearen eta gizarteen bizitzak berekin dakar, beti, halako tentsio bat. Alde batetik, baliorik gorenak (elkartasuna, humanismoa, bizitzari ateak irekitzea eta gogoz bizitzea, besteekiko elkarlana, errealitate immaterialen balioespena...) geureganatzen ditugu; bestetik, baliorik azpikoena (indibidualismoa, interesa, geure baitara ixtea, materialismoa...).

Humanismoaren jakintzari (ohartzea giza duintasuna dela baliorik gorena eta unibertsalak) irekitzen dizkiogu ateak, baina, aldi berean, egoismoaren mugetan itxita geratzen gara (gurari materialak eta indibidualak lehenbailehen asetzea). Tentsio horren kudeaketa kontraesankorrean ematen dugu bizitza.

Alabaina, ia kontraesanik eta anibalentziarik gabeko garai batean bizi gara orain. Badirudi hautsi egin dela pendulua. Bigarren mailakotzat jotzen dira humanismoaren erreferentziak; hori dela eta, indibidualismo materialista orekatzeko kontrapisurik eta alternatibarik ez da ageri. Beraz, gero eta egonkorragoa da gizakien ahalen beharrezko joera hori.

Paradoxa dirudi, baina XIX. mendearen amaieran jaiotako amona batek, bizitzaren eskolan bakarrik ikasita, funtsezko jakintza gehiago metatzen zuen, zenbaitetan, XXI. mendearen hasierako

ekonomia, ingeniari, zuzenbide edo politikako doktore batek baino. Zalantzarik gabe, asko egin dugu aurrera askatasunari, ongizateari eta eskubideei dagokienez, baina horiez gozatzeko oinarrizko erreferentziak galdu egin ditugu.

Bizikidetzaren, bakearen garapena Euskal Herrian

Zenbait hamarkaden ondoren, euskal gizartean bakearen garaia zabaltzen ari da. Testuinguru berria bereziki beharrezkoa da bizikidetzaren adiskidetzarako eta berradiskidetzarako ahalegin serioa, zintzoa eta zorrotza. Indarkeriaren amaierak gauza asko aldatzen ditu, baina horrek ez dakar arazo guztien bukaera. Oinarrizko adostasunak falta dira eta krispazioak eta zatiketa politikoek bere horretan jarraitzen dute. Zauri askok zabalik jarraitzen dute, sufrimendu asko, bidegabekeria asko eta aitortu gabeko biktimak asko. Iraganaren memoria kritikoa eta osoa egin gabe jarraitzen dugu. Berradiskidetzea bakearen garapena baino ez da.

Esperientzia konparatzaileak erakusten digunez, behin indarkeria amaituta, berradiskidetzela eguneroko beste premia politiko, sozial edo mediatiko batzuek baztertuta geratzen da. Aldez aurretik, berradiskidetzea garrantzitsutzat jotzen da, beti lehentasunezkoa ez bada ere. Gerora, sarritan bake-prozesuetako protagonistak bere garaian lan horri behar zuen lehentasuna eman ez izanaz daramuten dira.

Berradiskidetze-prozesurik gabe «ez gerrarik ezta bakerik ere» testuinguruan egon gaitzke. Ekintza biolentoak desager daitezke baina liskarraren eta beligerantziaren inertzia irrazionalak menperatutako jarrerak eta pentsamoldeek iraun dezakete. Egun, geure gizartean, berradiskidetzea bizikidetzaren etorkizuneko ardatz estrategikoa da. Ez gaude edozein aldaketaren aurrean. Aldaketa horrek guztiok ukitzen gaitu zerbaitean eta guztioi zerbaitek dagokigu aldaketa horretan. Bakea sendotzeko beharrezkoa da berradiskidetzea prestatzea.

Bizikidetzaren berradiskidetzea «beste» etsai bezala ikusteari utzi eta besterik gabe auzokide bezala begiratzea da. Aldaketa dakar eta aldaketa ez da soziala bakarrik ezta pertsonala bakarrik ere, pertsonala eta soziala da, soziala eta pertsonala. Berradiskidetzeak partekatua izan behar du nahitaez. Horregatik, bere ibilbidearen oinarrizko ideiak, beharrezko jarrerak eta urratsak partekatu behar ditu. Orain Euskal Herrian lehentasuna den aldaketa kritikoa da bizikidetzaren kultura.

Ondorioak

Esan dugun guztiak hainbat ondoriotara eramán gaituzte, eta baliagarri izan dakizkiguke Baketik-en ikuspegi berria zehazteko eta ulertzeko.

- 1. Krisi orokorra.** Bere jatorri nagusietako bat indibidualismo materialistenean oinarritutako zoriontasunaren ideologiaren nagusitasun osoa da. Ikusmolde horrek sistema politikoa, bizitzeko moduak eta sozioekonomia- eta garapen-ereduak baldintzatzen ditu. Horren emaitza sistema bidegabekia eta kolapsorako joera duena da. Premiazkoa da gizarte-eredu berriak bultzatzea.
- 2. Krisi pertsonala.** Zoriontasun berekoiaren ideologia berak bizitzeko ereduak baldintzatzen ditu. Geure pentsamoldeetan sustraitzen da eta herritar bakoitza, neurri batean, bere eragile bilakatzen da beren borondatez edo nahi gabe. Zoriontasuna ulertzeko modu indibidualista hori bizitzaren zentzuari gizatasuna kentzen dion itxaropen faltsua bilakatzen da. Beharrezkoa da bizitzeko modu berriak bultzatzea.
- 3. Bizikidetzaren-krisia.** Hamarkadak iraun dituen gatazka biolento baten ostean, bizikidetzaren berradiskidetzea bultzatzea bakea sendotzeko, zauri pertsonalak sendatzeko, haustura sozialak konpontzeko eta etorkizunean zatiketa suntsitzaileak prebenitzeko lehentasun kritikoa da. Beharrezkoa da iraganaren inertziak gaindituko dituen bizikidetzaren berradiskidetzaren kultura berria erdiestea.
- 4. Bat-etortzea.** Hiru diagnostiko horien bat-etortzea hiru kasuetan aldaketa behar dugula da; baina ez edonolako aldaketa. Aldaketa hori ez da soilik soziala edo politikoa edo ekonomikoa, ezta soilik pertsonala ere. Hiru diagnostikoen bat-etortze nagusia aldaketa pertsonala eta soziala behar dutela da, betiere abiapuntu bezala etika izanik.

«Ez dugu bizitza aldatuko ez bagara bizimoduz aldatzen» (J. Saramago).

5. Borondatea. Hiru galdera dakarzkigu, nagusiki, azterketa horrek: lehendabizikoa, zertan lagun dezaket mundua aldatzeko eta hobetzeko eginkizunean?; bigarrena, zertan aldatu eta hobetu behar dut neure bizitza?; eta hirugarrena, zertan hobe eta alda dezaket geure herriaren bizikidetzat? Bizizikasi pedagogia oinarri hartuta, hiru galdera horiei erantzuteko ekarri erakitzailea egin nahi du Baketik-ek.

B. EGITASMOA

Aurreko analisiak Baketik bere zeregina berriz ere definitzera darama. Bost urteren ondoren, egitasmoa berriro eratu eta berrabiarazi egingo dugu. Prozesua patxadatsua izango da. 2011-12 ikasturtea trantsiziozkoa izango da eraketa berri horren xehetasunak prestatzeko. 2012ko udazkenean Baketik berriaren behin betiko egitasmoa aurkeztuko dugu.

Ondorengo lerroetan, sorrera berriaren prozesu hori finkatuko duten 10 abiapuntuak adieraziko dira. Aldaketa horri urte beteko ikuspegiarekin aurre egiteak frogatzea, entzutea, hausnartzea, zuzentzea edo moldatzea ahalbidetuko digu eta hori guztia etenik gabe egitea baina aldi berean presarik gabe. Ondorioz, urtean zehar hobetzen joango diren premisa irekiak dira.

1. Definizio berria, zeregina eta printzipioak

Aldaketa pertsonal eta sozial humanizatzailearen zerbitzurako zentroa

Definizio berria

Baketik «Bizizikasi pedagogiaren zentro» gisa aurkezten da, horixe izango delako bere tresna nagusia. Pedagogia horren bidez eta etika baliabide gisa hartuta, ekimenak, proposamenak, dibulgazioa eta aholkularitza eskainiko du gizarte-eredu berriak, bizitzeko modu berriak eta bizikidetzakultura berria bultzatzera bideratuak. Baketik horrela definitzen da:

—*Bizizikasi pedagogiaren zentroa. Aldaketa pertsonalerako eta sozialerako baliabide etikoak.*

Baketik-ek bere ikuspuntua aldatu egingo du. Baketik, orain arte, prozesu eta gatazka pertsonalei, sozialei, hezkuntzazkoei edo elkartasunezkoei aurre egiteko tresnak eskaini dituen zentroa izan da. Hemendik aurrera, krisi orokorraren, krisi pertsonalaren eta bizikidetzakrisiaren testuinguruan, betiere etika abiapuntu dela, aldaketa pertsonalerako eta sozialerako zerbitzura bideratzen dituen zentroa izan nahi du. Arazo zehatzetan tresna eta ekintza zehatzak garatzen, aldaketa orokorraren proposamen baten barruan ibaliabideak eskaintzera pasako da.

Zeregina

Baketik-ek pertsonengan eta gizartearengan etikoki jasagarria den aldaketaren aukera sorrarazten duten oinarriak defendatzea, proposatzea eta bultzatzea du helburu. Harrapatuak gaituzten bidegabekeriak eta desorekak eraldatzen lagun dezakeen aldaketa eta bere eguneroko bizitzan pertsona bakoitzaren menpe dagoenetik jokatzen eskura daitekeena. Bere zeregina ez da gizarte-, bizitza- edo bizikidetzak-eredu zehatzak proposatzea baizik eta horiek posible egingo dituzten prozesuak sorraraztea eta erdiestea. Baketik-en zeregina ideia batean laburbil daiteke:

—*herritarrek mugitutako aldaketa pertsonalerako zein sozialerako baldintzak sortzea, betiere etika abiapuntu dela.*

Printzipioak

Baketik baliabide etikoen zentro bezala definitzen da. Eskaini nahi dituen baliabideen izendapen horrek esanahi zehatza dauka. Bere lanak eta proposamenak giza duintasunaren sustapenaren balio gorenari lotzen direla eta erreferentzia horren zentzu eta esanahi pertsonalaren eta

sozialaren etika batean oinarritzen direla esan nahi du. Oinarri hori eskubide, ahalmen eta aukera batekin bat datozen hiru printzipiotan irudikatzen da, bere giza duintasunaren arabera.

—*Itxuraz inperfektuak diren zoriontasunaren eta justiziaren eskubidea.* Inongo gizakia ez dago aurrez baldintzatua zoriontasunik eza kronikoa pairatzera, inongo gizarterik ez dago kondenatua bidegabekeria menderaezina pairatzera.

—*Hobetzea eta aldatzea aukeratzeko ahalmena.* Personek eta gizarteek hobetzeko eta euren errealitatea berriz ere eraikitzeko ahalmena daukate giza duintasunaren garapenean eta osotasunean.

—*Bizitza zentzua duen aukerara zabaltzeko bidea.* Bizitza pertsonala hobetzeko eta mundua hobetzeko erabakiak balio materiagabeetara zabaltzea dakar eta bizitzari zentzua emateko ibilbidea ahalbidetzen du.

2. Helburuak, pedagogia eta estrategia

Eskaintzea, partekatzea eta zabaltzea

Helburu nagusiak

Baketik-eko ekimen guztiek aldaketa orokorreko proposamenaren barruan aurkituko dute beren zentzuaren batasuna. Proposamen hori hiru lerro-nagusi lotzen dituen helburu orokor batean biltzen da:

—hobetzeko eta aldatzeko giza ahalmena bultzatzea:

- justiziaren garapenerako, mundu bidezkoago bati laguntzea;
- pertsonaren garapenerako, bizitzeko modu gizatiarragoak lortzea;
- bakearen garapenerako, Euskal Herrian bizikidetzaren berradiskidetzea erdiestea.

Helburu kualitatiboak

Baketik berrabiarazteko egitasmoa hiru helburu zehatzera begira jartzen da. Beren adierazpenak bere garapen-eremuari buruzko jarraibideak dauzka:

·**Eskaintzea.** Beti pertsona xumeen erreferentziarekin, hobetzen eta, eguneroko jardutetik, gizarte-, bizitza- eta bizikidetzaren ereduaren aldaketak erdiesten lagunduko duten baliabide etikoak eta eskuragarriak ezartzea.

·**Partekatzea.** Galdera hauei erantzunak bilatzeko proposatzea eta partekatzea: zertan lagun dezaket mundua aldatzeko eta hobetzeko eginkizunean?; zertan aldatu eta hobetu behar dut neure bizitza?; zertan hobe eta alda dezaket geure herriaren bizikidetzatza?

·**Zabaltzea.** Etikoki jasangarria den aldaketa pertsonaleko eta sozialeko prozesu biderkatzailea sortzen eta bultzatzen saiatuko diren oinarriak, gogoetak eta proposamenak adostea, zabaltzea eta komunikatzea.

Urte beterako lan-helburuak

Era berean, ondorengo hamabi hilabeteko lan-ildoak kokatzen dituzten lanerako hiru helburu, zehatzagoak eta kuantitatiboagoak, ezarriko dira:

·**Egitasmoa.** Urte beteko epean txosten honen abiapuntuak garatzen eta zehazten dituen egitasmo zehatza prestatzea.

·**Bideragarritasuna.** Etorkizuneko egitasmoaren oinarriak ezartzea bere onuragarritasun sozialaren arabera autonomoa eta ekonomikoki bideragarria izan dadin.

·**Parte-hartzea.** Baketik-eko Gizarte-Kontseilua osatuko duten 50 Bultzatzaileen hasierako nukleoaren inguruan parte-hartzeko komunitatea sortzea.

Pedagogia

Baketik berrabiarazteko prozesuaren definizioaren, zereginaren eta helburuen enuntziatuek tresna pedagogiko batean aurkitzen dute horiek garatzen dituzten edukia:

—*Bizizikasi pedagogia.*

Baketik-ek maila pertsonalean, sozialean zein bizikidetzakoan baliabide etikoekin hobetzen eta aldatzen ikasteko daukan balio estrategikoan sinestuz partekatu nahi duen ekarria.

Estrategia

Baketik-en strategiak hurrengo urteetarako enuntziatu argia eta gardena dauka:

—*Bizizikasi pedagogia eskaintzea eta konpartitzea.*

Pedagogia horrek geure buruari eta besteei, errealitateari eta bere arazoei, aukerei edo gertakizunei esperientziatzko zortzi ikuspegietatik edo erreferentzietatik begiratzea.

3. Irizpide gidaria

Geure menpe dagoen horretatik aldatzeko leloa

Aukera eta askatasuna

Geure esku dagoena aukeratzea da. Geure botere handia pertsonal eta sozial mailan aldatzeko aukeratzea da. Aukeratzea, aldaketa txikiak izango diren arren. Horixe da Baketik-ek partekatu nahi duen aldaketa pertsonalerako eta sozialerako proposamenaren irizpide gidaria. Geure esku dagoen honetan jarri behar dugu arreta. Eta geure eskura dagoena, geure boterea, etikoki aukeratzeko boterea da. Hau da, giza duintasunaren balio gorenaren erreferentziarekin aukeratzea.

Eguneroko bizitzan, neurekoikeria hutsa izan naiteke edo eskuzabala izatea aukera dezaket. Autoritarioa izan naiteke edo elkarrizketaren bidea aukera dezaket. Besteenganako ardurarik ezin dezaket izan edo atsegina izatea aukera dezaket. Kontsumoaren desioa jarrai dezaket zer dakarrenaz arduratu gabe edo gutxiagorekin eta modu jasangarriago batean bizitzea aukera dezaket.

Gatazka batean erreminaren, gorrotoaren, mendekuaren desioaren bultzadari jarrai diezaioket, edo proposamen eraikitzailea egitea aukera dezaket. Barkatzea ere aukera dezaket ere. Bizikidetzan sektarismo hutsa izan naiteke edo elkarrizketa erabiltzea, humanizatzea edo giza-harremanak edo harreman soziopolitikoak berradiskidetzea aukera dezaket.

Besteen sufrimenduaren aurrean ezer esan gabe egon naiteke edo elkartasuna aukera dezaket. Injustiziaren aurrean axolagabe bizi naiteke edo mundu hobe baten alde borroka sozialean eta politikoetan ardura hartzea aukera dezaket.

Uste duguna baino botere handiagoa daukagu. Geure boterea modu etikoan aukeratzea da. Giza duintasuna dugu kontzientzia dugulako, kontzientzia dugu aldatzea eta hobetzea aukera dezakegulako. Beti aukera dezakegu geure esku dagoen zerbait aldatzea. Piskat aldatzea errealitatea eraikitzeko. Baketik-ek bultzatu nahi duen aldaketa etiko pertsonalerako eta sozialerako proposamenaren irizpide gidaria honakoa da:

—*Baketik-eko jarduera osoan zeharka kontzientzia hartzea eta aldaketa pertsonala eta soziala bultzatzeko geure botere nagusiari balio pertsonal eta sozial handiagoa ematea: aukeratzeko boterea, betiere etika abiapuntua dela.*

Aldatzea aukera dezakegu edozein determinismotik haratago, saihestezina dirudien edozein aukera desberdin aukera dezakegu. Etika abiapuntu dela aukera dezakegu. Bizitza eta mundua al-

datzen duten aukeraketa txikiak egin ditzakegu. Irizpide horrekin Baketik berriaren egitasmoaren leloa sortzen da. Bi hitzetan laburbiltzen den leloa: «Aukera dezakegu». Hobetzeko aukera eta aldatzeko askatasuna irudikatzen duten bi hitz.

Muga eta itxaropena

Dena dela, ez da komeni emaitza jakin bat lortzeko itxaropenarekin ekitea aldaketa-prozesuari; hobe da aldaketarako giro egokia sortzeko itxaropenarekin hastea. Normalean, egiten ari garen hori kontrolatu nahiak, antsietateak, honakoa eragiten digu: helburu handiekin ekiten diogu aldaketari, baina itxaropen eskasarekin.

«Itxaropena ez da dena ondo aterako dela ziur jakitea, baizik eta egiten ari garen horrek zentzua baduela ziur jakitea, emaitza edozein delarik ere» (Václav Havel)

Alabaina, justu kontrako pentsaera behar dute aldaketa-prozesuek: ahalik eta itxaropen handiena, eta helburu apala. Izan ere, aldiko apur bat bakarrik hobetzen eta aldatzen gara. Fantasiak ametsen frustrazioa saihestu egin behar da, aldatzeko benetako kemena indargabetu egin dezakete-eta.

Egitasmo honetan, esperantza beti goialdean kokatzen da: justiziaren, pertsonaren eta bakearen garapena. Itxaropena beti lurraren arrasean kokatzen da, errelitatean: baldintzak sortzea itxaropen altuena ahalbidetu dezaten. Baldintzak baino ezin ditugu sortu eta horrela mundua hobetzen eta aldatzen dugu. Errealitatea hobetzea eta aldatzea aukera dezakegu beharrezkoa dena ahalbidetuko duten baldintzak sortuz.

4. Lehenengo urratsa

Paradigma-aldaketa planteatzeko dilema

Lehenengo aukeraketa

Aldatzea aukera dezakegu. Hori da irizpide gidaria; baina askotan ez dakigu nola egin. Trakets gabilta, blokeatuak edo itsuak gaude. Inertzia gailendu egiten zaigu. Hobetzen ikasi behar dugu, etikoki aldatzea aukeratzen ikasi behar dugu. Hemen Bizizikasi pedagogia sartzten da jokoan, hobetzen eta aldatzen ikasteko pedagogia. Dena dela, lehendabiziko bultzada behar dugu. Paradigma-aldaketa (eskema-, ikusmolde-aldaketa) behar dugu.

Aldaketa-aukerak zalantzak eta beldurrak sortzen ditu. Babestu egiten gara eta kontserbadoreak egiten gara hori saihesteko. Aldaketak zabaltzea eskatzen du; baina ixteko eta geure baitan eta kontrolatzen dugun horretan ixteko joera daukagu. Aldatzea aukeratzeak konfiantza edukitzea dakar, baina nahiago dugu ezaguna kontrolatzea ezagutzen ez dugunean konfiantza jartzea baino. Geure aukeratze-etikoaren boterea garatzeko, beldurrik gabeko askatasuna falta zaigu eta behar dugu.

Aldaketarako geure trabak gainditzea ahalbidetuko digun beste begirada bat eta ikuspegi berria behar ditugu. Paradigma berri hori oso dilema errazean laburbil daiteke: «zabaltzea edo ixtea». Zer da bizitza zabaltzea edo ixtea? Munduaren, bizitzaren eta bizikidetzaren ikusmolde indibidualistan, materialean eta sektarioan ixtea eta sartzeta edo daukagun horretatik eta kontrolatzen dugunetik haratagoko bizitza solidarioago eta irekiago zabaltzea.

Galdera horren erantzuna norbera eta gizartea aldatzeko prozesuaren lehen urratsa da. Geure aukera zabaltzea da. Atzera egiten duena zabaltzen duen hitza, kontrolatzera baino gehiago fidatzera daramana. Iraultza pertsonal eta sozial hori hitz horren indarrarekin hasi nahi dugu.

Zoriontasunaren beste ideia bat

Zoriontasunaren bilaketa bizitzaren eta aldaketa sozialaren, pertsonalaren eta bizikidetzakoren eragile nagusia da. Zoriontasun helduaz ari gara; ez zoritxarrik eza oinarri duen zoriontasunaz, baizik eta bizitzaren alderdi gozoak eta gaziak uztartzen dakien bizitzaren zentzuaz. Zoriontasun bila

jarduten gara; batzuetan, biderik zentzuzkoenetan bilatzen dugu eta, beste batzuetan, biderik okereenetan. Kontraesankorrak gara. Aldatzera eta hobetzera bultzatzen gaitu zoriontasun-premiak eta -itxaropenak.

Lehentxeago esan dugu hiru galdera eragiten dizkigula aldaketa-premiak: «Zertan aldatu eta hobetu behar dut neure bizitza?»; «Zertan lagun dezaket mundua aldatzeko eta hobetzeko?» eta «nola hobetuko eta aldatuko dugu bizikidetzaren geure herrian». Azken batean, honakoa ari gara galdetzen: «Nola izan naiteke zoriontsuago, eta nola lagun dezaket mundu zuzenagoa eraikitzen?». Beste galdera hau ere egin genezake: «Egin liteke bata bestea gabe?». Geure iritziz, bat egiten dute biek (norberaren zoriontasunak eta mundu zuzenagoa eraikitzeko nahiak), gizakion bizitzaren zentzuari baitagozkio biak..

Laburbilduz, giza zoriontasun heldu, zentzudun baterako erantzun eske ari zaizkigu galdera horiek. Geure ustez, bi galderen erantzunak diosku ireki eta hedatu egin behar dugula, ez bakarrik itxi eta geure baitara bildu. Ez gara zoriontsuago izango, ez dugu mundu zuzenagoa eraikiko geure baitarantz itxiz, egoismoa, ekonomizismoa, indibidualismoa eta kontsumismoa balio nagusizat hartuz. Askoz ere zoriontsuago izango gara balio immaterialei geure barrua zabalduz, geure izatea bizitzari eta besteei eskainiz. Hona, bada, proposatzen dugun aldaketa: zoriontasunaren bilaketa irekia izatea. Itxi ordez, zabaltzea.

5. Aplikazio-eremuak, proiektuak eta baliabide motak

Asmo-programa bat 21 lan-lerroekin

Bere berrabiarazteari begira eta txostenean adierazten ari garen kontzeptuzko eremuaren barruan, Baketik-ek hiru jarduera-ardatz definitu ditu egitasmo-kopuru zabal batekin horietako bakoitzean. Apurka-apurka eta hamar urteko epean garatuko den asmoen programa da.

Horrenbestez, 21 lerro definituko dira eskuhartze-egitasmoetarako. Logikoki, egitasmo horiek une horretan garapen-maila desberdina dute. Batzuk, hezkuntza-proiektuak bezalakoak, abian dauden jada; eta beste batzuk, ekologiarekin harremana dutenak bezalakoak, etorkizunerako lan-proposamenerako orientabide gisa aipatzen dira besterik gabe. Kronograma lerro batzuren edo besteren garapen-borondateak baino gehiago geure giza- eta ekonomia-bitartekoek eskaintzen dituzten aukerak mugatuko dituzte.

Baliabide-motak

Zehaztu nahi diren egitasmo-lerroak mota desberdinetako baliabideen (aldaketa pertsonalerako eta sozialerako baliabide etikoak) sorta batean adierazi beharko dira:

- aholkularitza pertsonala edo instituzionala,
- berriarazko kolektiboek zabaldutako eta bideratutako formazioa,
- dibulgazioa bide desberdinak erabiliz,
- proposamen generikoak edo zehatzak prestatzea,
- eta ekimen propioak edo beste erakundeekin konpartituak hartzea.

Hiru jarduera-ardatzak	Egitasmo-lerroak	Eragin-eremuak
A. Gizarte-ereduak	A.1. Garapen- eta berrikuntza-etika baterako oinarriak. A.2. Bizikidetasun pedagogia enpresan. A.3. Beste kontsumoa bat, beste ongizate bat.	Garapen sozioekonomikoaren eredia
	A.4. Jasangarritasuna eta garapena. A.5. Ekologiarekiko konpromisoa eguneroko bizimoduan. A.6. Ingurugiroarekiko konpromisoaren pedagogia.	Ekologia
	A.7. Elkartasun-eredu berriak.	
B. Bizitzeko moduak	B.1. Elkartasuna hobetzea singularreko eta pluraleko lehen pertsonan. B.2. Elkartasun-egitasmoak gertutik.	Elkartasuna
	B.3. Nork bere buruarengandik ikastea. B.4. Osasuna eta sufrimendua. B.5. Adimen espirituala.	Pertsona
	B.6. Elkarizketaren eta berradiskidetzaren pedagogia. B.7. Zuzentzeko aukera egiten ikastea.	Berradiskidetzea
C. Bizikidetasun-kultura	C.1. Proposamenak: Euskal Herriko bizikidetzaren berradiskidetzea.	
	C.2. Pertsona izaten hezi. C.3. Bizikidetzaren berradiskidetzarako hezkuntza. C.4. Irakasleentzat eta familientzat formazioa.	Hezkuntza
	C.5. Gatazken lantze etikoa. C.6. Kultura soziopolitikoan aldaketa-iradokizunak. C.7. Kulturen eta erlijioen arteko elkarguneak.	Bizikidetzaren eredu soziopolitiko

6. Baketik-eko parte-hartzeko komunitatea

Zirkulu zentrokideak sare soziala osatzeko

Baketik erakunde apala da. Bere oinarria zuzendaritza- eta lan-taldeek osatzen dute, laguntalde murriztuek. Bere erronka gizartearekin komunikatzea eta elkarri eragitea izango da. Baketik bezalako erakunde batek komunikatzeko beharra dauka eta bere ekimenak ezagunak izatea. Logikoki, Internet-ek eskaintzen dituen aukerak dauka, komunikabideek eskaintzen duten tarte murriztuarekin eta esku-orrien edo publizitate-baliabideen tresnarekin.

Hala ere, hori guztia, beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa. Nahitaezkoa da halaber guztion artean nortasunezko eta Baketik-en partaide izateko eremu propioa eta autonomia ezartzea iritzia, parte-hartzea, dibulgazioa eta bideragarritasuna partekatzea ahalbidetuko duena. Eremu partekatu horri parte-hartzeko komunitatea deituko diogu eta gizarte-sarearen egitasmoa eratuko duten bost zirkulu zentrokideren inguruan dinamizatuko da. Zirkulu zentrokide horiek ondorengoak dira:

• **Lehendabiziko zirkulu zentrokidea:** Baketik-eko zuzendaritza- eta lan-taldeak. Baketik-eko programa diseinatze eta garatzeko arduradunak. Talde horiek Baketik orientatzeko, sostenga-

tzeko eta bultzatzeko erantzukizuna partekatuko dute, hasieran, 50 kidek ostaturiko duten Gizarte-Kontseiluarekin batera.

·**Bigarren zirkulu zentrokidea:** Baketik-eko Gizarte-Kontseilua. Aholkularitza-, kontsulta- eta bultzatzaile-izaera duen organu berria da. Bere 50 kideak (zenbakia piskanaka handi daiteke) arlo eta errealtate desberdinetara lotuak egongo dira. Bultzatzaileen irudia onartzen dute. Lau puntutan laburbil daitezkeen zenbait eskubide, eskumen eta funtzio dauzkate:

1. Baketik-eko ekimenei buruzko informazioa jasotzeko eta horretarako sarbidea daukate eta une oro zuzenean iritzia emateko eta parte hartzeko eskubidea daukate.
2. Gai zehatzei buruz eta internet bidez, Baketik-ek Gizarte-Kontseiluari egiten dizkion kontsultetan parte hartzeko aukera eta eskubidea daukate.
3. Urtean zehar balantze- eta planifikazio-bilera batera dei egingo zaie.
4. Gai horietan laguntzeko borondatea partekatuko dute:
 - Baketik-eko proposamenak eta mezuak zabaltea;
 - autofinantziario-ekimenak bultzatzea;
 - plangintzen diseinua egitea urteko bileran parte hartuz.

Kontseilu hau osatzea Baketik berrabiarazteko prozesuaren helburu zehaztutako bat da. 2011-12 ikasturtean ekin behar zaion lehentasun estrategikoa da.

·**Hirugarren zirkulu zentrokidea: Laguntzaile ekonomikoak.** Ekarri ekonomiko baten bidez parte hartzen duten lagunak dira. Baketik-ek laguntza ekonomikoa emateko hiru bide zabalduko ditu. Kasu bakoitzean ordainean formazio- eta aholkularitza-zerbitzuak edo berariazko egitasmoak zabaltea zehaztuko ditu ekarri bakoitzaren onura pertsonala, soziala edo korporatiboa bilatuz.

·**Laugarren zirkulu zentrokidea: Baketik-eko baliabideen erabiltzaileak.** Zentro honek antolatutako ikastaroetan edo ekintzetan parte hartu duten edo hartuko duten milaka lagun dira. Baketik-en mezuak jasotzen lehenengoak dira eta beste lagunen eta erakundeen artean zubi lana egiteko gonbidapena luzatzen zaie. Baketik-eko telefonoa, posta elektronikoa edo web gunea zabalik dituzte beren kritikak, iradokizun edo iritzia helarazteko.

·**Bosgarren zirkulu zentrokidea: Gizartea.** Hau da, edozein bidetatik Baketik-en mezua helarazi nahi diogun edo heltzen zaion edozein lagun da. Helburua honakoa da: norbaitek edozer gehiago edo zehatzago jakin nahi badu hurbiltze horretarako ateak zabalik aurkitzea.

7. Egitasmoaren bideragarritasuna

Autonomia, onuragarritasun soziala eta autofinantziarioa

Baketik-en egitasmoaren bideragarritasunak abiatze-baldintza bat dauka: bere autonomia edo irizpide-independentsia. Bere helburu soziala eta ibilbide-askatasuna mugatuko lituzkeen menpekotasun ekonomikoa, ideologikoa edo instituzionala duen harremana jatorrizko nortasun propioarekin kontraesan bateraezina izango litzateke. Bideragarritasunaren bigarren premisa egitasmoaren onuragarritasun soziala bilatzea da. Abiapuntu bezala dugun maximoa honakoa da: Baketik bideragarria izango da, bere ekimenak gizarte-mailan baliagarriak baldin badira. Horrela, ikuspegi kontzeptual batetik, onuragarritasun soziala bideragarritasunaren oinarria da.

Bi premisa hauek oinarri hartuta, Baketik-en bideragarritasunaren printzipioa eta helburua horrela adierazten dira:

- Printzipio bat.** Baketik-en autofinantziarioa bere proiektuen onuragarritasun sozialaren aldeko apustu osoan eta autonomoan oinarritzen da.
- Helburu bat.** Helburua autofinantziarioa lortzea da. Neurri handi batean, bere zerbitzuen eskaintzak sortzen dituen baliabideetan eta babes sozialeko ekarrietan oinarritutakoa eta diru-sarreraren iturriak dibertsifikatzearekin osatua.
- Bi ardatz.** Autofinantziarioaren ardatz nagusiak zerbitzuak eta babes sozialeko ekarriak dira.

-Zerbitzuen ardatza onuragarritasun sozialeko zerbitzuen sorta bat aurkeztera eta kudeatza bideratzen da, batez ere aholkularitza, formazioa, ekimenen dibulgazioa eta bultzada eta aldaketa pertsonalerako eta sozialerako proposamenak.

-Babes sozialeko ekarrien ardatza laguntza ekonomikoa eskaintzen duten hiru irudi edo aukera irekien sorreraren bidez bideratuko da. Kasu guztietan, egiten den ekarriarentzat onuragarritasun pertsonalaren, sozialaren edo korporatiboaren itzulerako formulak bilatuko dira.

—**Bazkide-Lagunak:** Hilean 10 euroko edo antzeko ekarriarekin lagunduko duten pertsonak eta erakundeak. Ekarki horren onuragarritasunaren itzulera formazio-eskaintzetan parte hartzeko erraztasunak ematen eta aholkularitza pertsonalerako zerbitzuetan irudikatuko da.

—**Bazkide-Laguntzaileak:** Hilean 100 euroko edo antzeko ekarriarekin lagunduko duten pertsonak eta erakundeak. Ekarki horren onuragarritasunaren itzulera formazio- eta aholkularitza-eskaintza pertsonalizatueta zehaztuko da, edota, enpresen kasuan, erantzukizun sozial korporatiboaren eremuan proiektu zehatzak babestuz.

—**Bazkide-Babesleak:** Hilean 1.000 euroko edo antzeko ekarriarekin lagunduko duten pertsonak eta erakundeak. Kasu horretan, ekarki horren onuragarritasunaren itzulera Baketik-eko eskaintzetan logotipoa jartzen eta baita formazio- eta aholkularitza-eskaintza pertsonalizatueta edota erantzukizun sozial korporatiboaren eremuan ere irudikatuko da.

Eranskina. Laburbilduz

Aukera dezakegu

Baketik-ek bere zeregina berriro definitu du; orain bere zeregina honakoa da: «norbera eta gizartea aldatzeko baliabide etikoak eskaintzea». «Bizizikasi pedagogiaren zentro» gisa aurkezten da hori izango delako bere tresna nagusia. Bizizikasi pedagogia hobetzen eta aldatzen ikasteko Baketik-ek sortutako pedagogia da. Baketik-ek hiru norabidetan lan egingo du tresna horrekin: krisi orokorraren aurrean gizarte-eredu berriak eragitea; norbera aldatzeko behararen aurrean bizitzeko modu berriak sustatzea; eta bakerako bertako lehentasunaren aurrean bizikidetzaren kultura berria erdiestea.

•**Gogoeta.** Bost urte betetzen ditugun honetan, Baketik-ek beharrezkoa ikusten du bere egitasmoa berbideratzea. Horretan modu nabarmenean hiru faktorek dute eragina: lehentasun orokorrrak, mundu mailako krisiak; lehentasun pertsonalak, bizitza hobetzeko beharra; eta bertako lehentasunak, bakea eta bizikidetzaren Euskal Herrian. Baketik-en erabakia hiru lehentasun horien aurrean berrikatzea eta gizarteari ekarri onuragarria eskaintzea da.

•**Hiru diagnostiko.** Lehentasun horietako bakoitzak azterketa berezia behar du, beren artean lotura garrantzitsuak dituzten arren.

•**Krisi orokorra.** Bere jatorri nagusietako bat indibidualismo materialistenean oinarritutako zorientasunaren ideologiaren nagusitasun osoa da. Ikusmolde horrek sistema politikoa, bizitzeko moduak eta sozioekonomia- eta garapen-ereduak baldintzatzen ditu. Horren emaitza sistema bidegabea eta kolapsorako joera duena da. Premiazkoa da gizarte-eredu berriak bultzatzea.

•**Krisi pertsonala.** Zorientasun berekoiaren ideologia berdinak bizitzeko ereduak baldintzatzen ditu. Geure pentsamoldeetan sustraitzen da eta herritar bakoitza, neurri batean, bere eragile bilakatzen da beren borondatez edo nahi gabe. Zorientasuna ulertzeko modu indibidualista hori bizitzaren zentzuari gizatasuna kentzen dion itxaropen faltsua bilakatzen da. Beharrezkoa da bizitzeko modu berriak bultzatzea.

•**Bizikidetzaren krisia.** Hamarkadak iraun dituen gatazka biolento baten ostean, bizikidetzaren berrikidetzaren bultzatzea bakea sendatzeko, zauri pertsonalak sendatzeko, haustura sozialak konpontzeko eta etorkizunean zatiketa suntsitzaileak prebenitzeko lehentasun kritikoa da. Beharrezkoa da iraganaren inertziak gaindituko dituen bizikidetzaren berrikidetzaren kultura berria erdiestea.

•**Bat-etortzea.** Hiru diagnostiko horien bat-etortzea hiru kasuetan aldaketa behar dugula da; baina ez edonolako aldaketa. Aldaketa hori ez da soilik soziala edo politikoa edo ekonomikoa, ezta soilik pertsonala ere. Hiru diagnostikoen bat-etortze nagusia aldaketa pertsonala eta soziala behar dutela da, betiere abiapuntu bezala etika izanik.

•**Borondatea.** Hiru galdera dakartzkigu, nagusiki, azterketa horrek: lehendabizikoa, zertan lagun dezaket mundua aldatzeko eta hobetzeko eginkizunean?; bigarrena, zertan aldatu eta hobetu behar dut neure bizitza?; eta hirugarrena, zertan hobe eta alda dezaket geure herriaren bizikidetzaren? Bizizikasi pedagogia oinarri hartuta, hiru galdera horiei erantzuteko ekarria eraikitzailea egin nahi du Baketik-ek.

•**Tresna.** Erronka horri aurre egiteko, Baketik-ek duen tresna nagusia Bizizikasi pedagogia da, Baketik-ek bost urte hauetan zehar sortu duen pedagogia. Etika abiapuntu izanik, hobetzen eta aldatzen ikasteko baliabide pedagogiko sistematizatuen multzoa da. Hobetu eta aldatu gizarte-eredu berriak, bizitzeko modu berriak eta bizikidetzaren kultura berria sustatzeko.

•**Zeregina eta helburuak.** Baketik «Bizizikasi pedagogiaren zentro» gisa aurkezten da hori izango delako bere tresna nagusia. Bere zeregina berriro definitu du; orain bere zeregina honakoa da: «norbera eta gizartea aldatzeko baliabide etikoak eskaintzea». Baketik-eko ekimen guztiek hiru ardatz nagusi lotzen dituen helburu nagusi baten barruan aurkituko dute beren zentzuaren batasuna:

·hobetzeko eta aldatzeko giza ahalmena bultzatzea:

- justiziaren garapenerako, mundu bidezkoago bati laguntzea;
- pertsonearen garapenerako, bizitzeko modu gizatiarragoak lortzea;
- bakearen garapenerako, Euskal Herrian bizikidetzaren berradiskidetzea erdiestea.

·**Lelo bat irizpide gisa.** Baketik-en egitasmo berriaren ardatza eta irizpide gidaria honakoa da: kontzientzia hartzea eta aldaketa pertsonala eta soziala bultzatzeko pertsona arruntek duten botere nagusiar balio handiagoa ematea. Botere hori aukeratzea da. Aukeratzeko boterea betiere etika abiapuntua dela. Horregatik, Baketik-en ibilbide berriaren leloa bi hitzetan laburbiltzen da: «Aukera dezakegu». Hobetzeko aukera eta aldatzeko askatasuna irudikatzen duten bi hitz horiek.

·**Dilema bat lehen urrats gisa.** Aldatzea aukera dezakegu; baina askotan ez dakigu nola egin. Inertzia gailendu egiten zaigu. Paradigma aldatzeko lehen urratsa eman behar dugu. Lehen urrats horrek dilema bati aurre egitea eskatzen du: «zabaltzea edo ixtea». Zer da bizitza zabaltzea edo ixtea? Munduaren, bizitzaren eta bizikidetzaren ikusmolde indibidualistan eta materialean ixtea eta sartzea edo daukagun horretatik eta kontrolatzen dugunetik haratagoko bizitza solidarioago eta irekiago zabaltzea.

·**Jarduera eremuak.** Jarduera-programa hiru eremu handitan banatuko da: gizarte-ereduak, bizitzeko modu pertsonalak eta bizikidetzak-kultura. Eremuetako bakoitzak hamar urteko apezan garapen-proiektu desberdinak ditu. Horietan guztietan, Baketik Bizikidetzak pedagogia oinarri hartuta baliabide etikoak eskaintzen saiatuko da. Baliabide horiek mota desberdinetakoak izan daitezke: aholkularitza pertsonala edo instituzionala, berariazko kolektiboetako zabalduetako eta bideratutako formazioa, dibulgazioa bide desberdinak erabiliz, proposamen generikoak edo zehatzak prestatzea eta ekimen propioak edo beste erakundeekin konpartituak hartzea.

·**Baketik-en egitasmoaren hiru gakoak.** Programaren garapena baldintzatzen duten gakoak ondorengoak dira:

- Baketik-en egitasmoaren abiapuntu-baldintza bat bere autonomia instituzionala eta bere irizpide-independentsia da bere ibilbide propioa askatasunarekin definitzeko.
- Batez ere, zerbitzu propioen baliabideetan eta babes sozialaren ekarrietan oinarritutako bideragarritasuna eta autofinantziarioa bilatzea.
- Parte-hartze komunitatearen eratzea. Bere abiapuntua Baketik-en sustapena partekatzen duten 50 kideko Gizarte-Kontseilua da.

Baketik

Arantzazu, 2011ko urriaren 15a